


UPV/EHU



2020tik, **Vital Fundazioak** 19 ikerketa-proiektu bultzatu ditu gure lurraldean, besteak beste, BioAraba Arabako Bioteknologia Institutuaren eskutik.

UPV/ EHU

UPV/EHUK bost proiekturen bidez hartuko du parte:

1.- Immunogenizitatearen analisi serologikoa eta SARS-CoV-2ren neutralizazio-gaitasuna COVID-19 eriondoko gaixoengan.

- Beatriz Apellanizek zuzenduta, COVID-19 gaixotasuna izan duten gaixoen serumak aztertuko dira, birusa gogor neutralizatzen duten antigorputzen bila, hau da, infekzioa inhibitzen oso eraginkorrak direnak. Helburua plasma-emaila egokienak identifikatzea da, ondoren paziente larrienak tratatzeko. Gainera, birusaren aurkako espektro zabala duten antigorputzak detektatzen saiatuko da, SARS-CoV-2 eta etorkizuneko aldaerak neutralizatzeko eraginkorrak izan litezkeenak.

2.- Hondakin-uren epidemiologia SARS-CoV-2ren (COVID-19) detekzio goiztiarrerako, farmakoen kuantifikaziorako eta substantzia toxikoen analisirako.

- Gorka Oriveren eskutik, ur zikinetan oinarritutako plataforma bat prest jartzea dute helburu, pandemiarekin lotutako analisi hirukoitza egiteko. Laginak hartu dira uztaila hasi arte, hondakin-uretako koronabirusaren neurketa baten bideragarritasuna

egiazatzeko, eta laginak hartu dira toxikoak eta apiriletik uztaileira kontsumitu eta erabili ahal izan diren botikak aztertzeko.

3.- COVID-19k Arabako haurren artean eragindako konfinamenduaren ondorioak, D bitaminaren estatusen, pisuan eta gorputz-osaeran oinarrituta.

- Leixuri Agirre izango da ikertzailea. Pandemiaren ondorioz, herritarren mugikortasuna murriztu zen, eta haien etxeetan konfinamendua ezarri zen. Egoera horrek, elikadura-ohituretan izandako aldaketekin batera, pisua handitzea errazten du. Helburua da Arabako haurren jardura fisikoan, elikadura-patroian, gorputz-pisuan eta D bitaminaren mailetan izan diren aldaketak azterzea.

4.- COVID-19ren infekzio- eta larritasun-markatzaileak bilatzea eta SARS-CoV-2ren infekzioa detektatzeko eta haren jarraipena egiteko gailu bat garatzea.

- Maria de los Angeles Martinez de Pancorbok zuzenduko du proiektu hau, eta birusak kutsatzeko arrisku handia eragiten dien ezaugarri genetikoak dituzten pertsonak antzematea du helburu. Era berean, diagnostiko ultrasentsiborako gailu azkar bat garatzeko lan egingo dute, kostu txikikoa eta etxebizitzetan, egoitzetan, lehen mailako arretako zentroetan eta abarretan erabili ahal izango dena, gaixotasuna hautematea eta haren jarraipena egitea errazteko.

5.- COVID-19rako aurreikusteko ereduen ekarpenak, adimen artifizialean oinarrituak, Arabako Lurralde Historikoarentzat espezifikoak – Covid19THA.

- Proiektu hau José Manuel Lópezek zuzendutako talde batek garatuko du, eta adimen artifizialean oinarritutako eredu prediktiboak lortzea du ardatz, osasun-langileei paziente bakoitzaren kudeaketa eta tratamendua hobetzen laguntzeko, paziente horrek duen gaixotasunaren bilakaeraren ezagutzan oinarrituta, eta hori guztia arreta berezia jarritz Arabako Lurralde Historikoko biztanleriaren berezitasunetan.